

MIGRAZIOAK ETA ANTIARRAZAKERIA GIZARTEAN, MUSIKAREKIN LOTUTA AL DAUDE?

Migrazioak ura gorputzean bezain naturalak dira, baina gizarte arrazista batean bizi gara

Migrazioen historia duela milaka milioi urte hasi zen, lehen zelulak hainbat zelulatan bereizteko migratu zuenean hasi, eta gizateriaren historiako lehen pertsonaraino, zeina afrikarra zen (Afrikako kontinentekoa), zehazki Etiopian aurkitua. Historia horri ez ikusia egin zaio eta kriminalizatu egin da. Zergatik lotzen dugu Hegoalde globaleko (mespretxuz hirugarren mundu gisa ere ezagutzen den lekuko) pertsonen migrazioa kriminaltasunarekin, batere zerikusirik ez badu ere? Galdera horren erantzuna deserosoa da. Jakin badakigu, baina jende gehienak ez du nahi berriz pentsatu eta deseraiki gaizki dagoena, oso errotuta baitago.

Nekeza da onartzea arrazializatutako pertsonen aurka izan den arrazakeria. Nabarmendu behar da migratzaile guztiak ez direla arrazializatuak, eta arrazializatu guztiak ere ez direla migratzaileak. Haietako asko belaunaldiz belaunaldi egon dira hemen, baina gero atzerritartzat jotzen dira beti. Sekula ez dira hartzen bertakotzat, hazi ahala dena ikusi duten lurraldekotzat.

Espainian dagoen lege batek betikotu egiten du pertsona arrazializatuak 'beratakoak' ez direlako ideia. Lege hori dela-eta, migratzaileek zapalkuntza instituzionalizatuari egin behar diote aurre (eta instituzionalizatutako beste indarkeria arrazista askori, hala nola higiezinaren arloan, poliziarenenean, eskolan, osasunean eta beste esparru batzuetan dagoen arrazakeriari). Lege horren arabera, benetako espainiarra izateko 'odolezko espainiarra' izan behar da. Ez da aski belaunaldiz belaunaldi bizi izandako lurraldean jaio izana, 'odolezko espainiarra' izan behar duzu. Inork ez daki zer esan nahi duen 'odolezko espainiarra' izateak. Monarkia zure gustukoa izatea izango al da? Zuria izatea izango al da? Lurraldean jaio izana izango al da? Ez dut uste horietako erantzun bat ere denik. Nolanahi ere, lege horrek "ius sanguinis" du izena.

Horrez gain, arrazakeria instituzionalizatuta dagoela erakusten duen egoera larria dago, hala nola 2022ko ekainaren 24an hegoaldeko mugan gertatu zena. Gertakari hori Europako hegoaldeko mugan historian izan den sarraskirik larrienetako bat da, eta Espainiako herritarren zati handi batek pasibotasunez hartu zuen. Egun horretan, Espainiako estatuko eta Europako 'nekropolitikak' — aldez aurretik pentsatutako heriotza-politikek, gorputz migratzaile afrikarrak muga fisikoetan hiltzen uzteko edo zuzenean hiltzeko xede duten horiek— indar osoz jardun zuten berriz Melillan. Heriotza-politika horiek 37 lagun hil zituzten, gutxienez, Melillako hesia zeharkatzen saiatu zirenean (erakunde batzuek 100era igo dute hildakoen kopurua). Arrazakeriaren aurkako mugimenduen manifestu baten arabera: 'Berriz ikusi dugu pertsona beltzen bizitzak, gorputz beltzak bortxatu dituztela eta gizatasuna kendu dietela, eskubide orotatik gabetu dituztela. Hondakin gisa erabili dituzte, bere isiltasunarekin sarraski handi baten konplize izan den gizarte oso baten begiradaren aurrean.'

Horrek guztiak gizatasun osoa kentzen die migratzaileei. Baita lurraldean jaiotako pertsoneri ere, iritsi berriak izango balira bezala katalogatzen baitituzte betiko. Afrikako beltzok hemen bizi izan gara, belaunaldiz belaunaldik, Ándalusetik hasita. Hura nazio beltza zen. 'Moru' hitza latinezko "maurus" hitzaren eratorria da, horrek "kolore ilunekoa" esan nahi du eta greziera zaharretik hartua da: μαυρός (maurós). Terminoa, jatorrian, amazighak eta Mauritaniako beste herri batzuk deskribatzeko erabiltzen zen, Afrikako iparraldeko herriak. Denboraren poderioz, gero eta gehiago aplikatu zieten azal argiko Ipar Afrikako pertsoneri. Baina 'mororik ez, kostaldea garbi dago' esaerak, Jordi Hurtadok baino urte gehiago ditu, eta Afrikatik etorritako jende beltz eta azal ilunekoari egiten zion erreferentzia.

Gizateriaren historia Afrikan hasi zen, eta gaur egun populazioa mundu osoan barreiatuta dago; beraz, bizitzako une batean edo bestean jende guztiak migratu du. Hortaz, ezin da beste alde batera begiratu, sarraskiak, diskriminazio instituzionala eta kriminalizatuta dagoenarekin zerikusia duen guztia ez ikusteko. Diskriminazio horiek lehenbailehen desagertu behar dira. Arrazakeriaren aurkako mugimenduaren ahaleginak ez dira alferrikakoak izan behar. Gure esku dagoen guztia egingo dugu, arestian aipatutako egoerak desagerrarazteko. Atzerritartasun-legea, migratzaileen bizitza zailtzen duena, muturreko prekaritate-egoeretara bultzatuz (Regularización Ya erakundeak salatu duenez). Jende askoren administrazio-egoera irregularra, ez baitie aukera ematen gizartean bizitzeko. Begiradak, errespetu faltak, eta pertsona zurien aurpegietan agertzen den sinesgaiztasuna, imajinatzen ez gaituzten lekuetan ikusten gaituztenean. Hori guztia desagerraraztea ez da erraza izango. Baina lan hori oso intentzionala da eta arazo soziala da; beraz, gizarte osoak parte hartu behar du. Mundu guztiak borrokatu beharko luke arrazakeriaren aurka, osasun publikoko arazoa baita.

Nola erlazionatzen dira arrazakeria eta musika? Afrosesión ahalduntzeko tresna gisa

Sarritan, abesti afrikar bat biral bihurtzen da, eta inor ez da konturatzen afrikarra dela, are gutxiago zer dioen. Nomcebo Zikodek Master KGrekin egindako Jerusalem abesti handia ezagun egin zenean, gogoan dut nola dantzatzeko zuen jende guztiak. Hala ere, baten bati galdetzen nionean ea esanahia ezagutzen zuen edo Jerusalemekin lotutako zerbaitekin ba ote zekien —artistak aipatzen dituen hainbat erlijio-espiritualtasunekin lotura handia duen lurraldea— erantzuna ezezkoa izaten zen. Bazirudien abestia bere erritmoagatik zela ona, eta ez bere eduki espiritualagatik. Bat-batean, mundu guztiak ahaztua zuen Jerusalem lurralde palestinarra dela, Israelgo estatuak okupatuta, zeinak 75 urte baino gehiago daramatzen genozidioa eta deuseztapen etnikoa egiten Palestinako herriaren aurka. Hori horrela gertatu zen, izan ere, Afrikako abesti gehienek erritmo eta lotura estua dituzte espiritualtasunarekin, lurraldearekin eta dantzarekin.

Erritmo afrikarrez egiten den irakurketak joera du genero horiek desnaturalizatzeko, kapitalismoaren ondorioz. Hori askotan gertatzen da Hegoalde globaletik datozen musika eta dantza generoekin. Askotan, 'folkloretzat' baizik ez dira hartzen, baliorik eta esanahirik gabeko entretenimendu gisa. Gorputza azaletik mugitzeko baizik balio ez duena, arte-sorkuntzak dituen ertz ugariak kontuan hartu gabe. Normalean testuinguruko bizipenei eta esperientziei lotuta daude, kolonialismoarekiko erresistentziarekin, alaitasunarekin, biziraupenarekin, komunitate-pozarekin, haserrearekin, maitasunarekin, alaitasunarekin uztartuta.

Paradoxikoki, hori ez da gertatzen arraza zuriarekin lotuta dauden dantza-genero musikalekin, nahiz eta talde sozial ahul batzuentzat arriskutsuak diren estereotipoetan oinarritutako joerak errepikatu. Hegoalde globaletik datozen musika-generoekin gertatzen den beste kontu berezi bat da beti gutxiespenez edo adjektibo negatiboz deskribatzen direla. Matxista edo diskriminatzaile gisa katalogatu ohi dira, nahiz eta mundu guztiak jakin musika-testuinguruei erantzuten dietela. Abestiak testuinguru bati erantzuten dioten adierazpenak dira, eta, beraz, ezinezkoa da batzuek genero baten inguruan egiten dituzten abesti guztiak diskriminatzaileak izatea. Egiatzkoagoa eta zentzudunagoa da pentsatzea diskriminazioa dagoela jendea dagoen musika-genero guztietan, estereotipo horiek erreproduzitzen baitituzte egiten duten musikan.

Hala ere, diskriminazio-mota horiek aipatzen direnean, ikusmen-eremua gutxi batzuetara mugatzen da: beti azpimarratzen da zein matxista den Hegoalde globaleko generoa, hala nola reggaettoa, zein matxista eta klasista den afrobeat generoa. Jende guztiak ez ikusia egiten dio jende zuriari lotutako generoetan gertatzen denari, esaterako, rock&rollean. Rock&rolla ez zuen pertsona zuri batek sortu; Sister Rosetta Tharpe emakume beltz afroestatubatuarrek sortu zuen, 1930eko

hamarkadaren amaieran. Alabaina, erabat ikusezin bihurtu zen, rock&rolla Elvis Presley ospetsuaren irudiaren inguruan kapitalizatu ondoren. Generoaren erreferentzia gisa hartu diren eta pertsona zuriek osatuta dauden talde askok letra misoginoak dituzte, hala nola AC/DC, Guns and Roses etab. 'The Guardian' hedabidearen arabera, Guns N' Roses taldeak One in a Million abestia kendu du 5 milioi kopiatik gora saldu zituen Appetite for Destruction disko arrakastatsuen hurrengo berrargitalpenetik. 1980ko hamarkadako rockaren titanek ez dute ezer esan erabakiari buruz, baina badirudi abestiaren letra izan dela arrazoa, hizkera arrazista eta homofobikoa baitu. Letrak honako pasarteak ditu: "Polizia eta beltzak, hala da / Nire bidetik kanpo / Ez dut zure urrezko katerik erosi behar gaur".

Beste letra batzuek honela diote:

"Etorkinek eta
maritxuek ez dute
zentzurik niretzat
Gure herrialdera datoz
Eta uste dut nahi dutena egingo dutela
Esaterako, mini-Iran bat hasi
Edo gaixotasun gaiztoren bat hedatu
Eta hainbeste molde madarikatutan hitz egiten dute
Ez dut ezer ulertzen".

Paradoxikoki, hori ez da inoiz estereotipo izango. Jendeak ez du inoiz esango rock'n'rolla arrazista, homofoboa edo misoginoa dela. Horrek zerikusi handia du musikaren industrian sortzen diren dinamika arrazistekin; izan ere, horri esker, munduaren zati bat monolito gisa konta daiteke, eta "azpigaratu" gisa katalogatu gutxiespenez, gaitasun intelektualarekin edo aztertze gaitasunarekin lotuz.

Lehen esan dudan bezala, dantzak sustrai historikoak dituen elementu kulturala dira, eta dantzatik bertatik bereizi behar ez den pisua dute. Dantzak kultura partekatzeko modu komunitarioa dira, eta hor ulertu behar da dantzak egiteko erabiltzen ditugun kultura guztien oinarri historikoa. Denek dute historia bat, errespetatu beharrekoa. Berariaz nabarmendu nahi dut dantza afrikarrak erresistentzia historiko baten ondorio direla, dantza horiek betiko ezabatu eta desagerrarazi nahi izan baitituzte, dantzaten zituztenak zapalduz. Eta hori dut gustukoan. Jendeak dantza afrikar garaikideak ikasi ahal izatea, baina ezagutza eta kontzientzia kritikoarekin.

Horregatik sortu nuen 2020an AFROSESIÓN proiektua, dantza afrikarrak eta haien historiak eta kulturak irakasten dituen proiektua. Bereziki, afrobeats, Mendebaldeko Afrikako eta diasporaren musika-genero herrikoia, hasieran, Nigerian, Ghanan eta Erresuma Batuan garatua 2000 eta 2010eko hamarkadetan. Afrikako kontinenteari buruzko gauza liluragarriak ere irakasten ditut. Munduko hainbat lekutan egon gara AFROSESIÓN proiektuarekin, bere natura errespetatzen duen iraultza kultural bat egiten. Gure leloa da "beti da hobe dantzatzea ezagutza izanda!"



Gehiago jakiteko, gure sare sozialak jarrai ditzakezu:

<https://lift.bio/quinndy>.

www.instagram.com/quinndy

www.instagram.com/afrosesion

www.instagram.com/followthepartybilbao

QUINNDY AKEJU



Quinndy Akeju (Ella/ella) (@quinndy) Afrobeatsko dantzaria eta koreografoa da. Nigeriarra, Estatu espainiarrean jaioa eta bertan kokatua, bi libururen egilea, ikertzailea, hedabideetako komunikatzailea eta erizain asistentziala. AFROCOLECTIVA hedabidearen sortzaileetako bat da, eta estatuko hainbat hedabide eta instituziorekin ere lan egin du, hala udalekin nola unibertsitateekin. Espainiako estatuko zenbait ekimenetan lan egiten du, migratzaileen, arrazializatuen, afrikarren eta afrikarren ondorengoen eskubideak sustatzeko. Hainbat onarpen jaso ditu, besteak beste, Bilboko Udalaren 'Emakume Politikoaren' egunekoa. Afrosesión izeneko bere proiektuan, dantza afrikarrak irakasten ditu, bere historia eta kulturekin batera.